

Guadalupe Atxaga Romaratezabala

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea

Biografia



Aretxabaletako Leizabal baserrian jaioa, 22 urterekin Eskoriatzara ezkondu zen. Guraso biak aretxabaletarrak zituen. Guztira 15 anai-arreba izan ziren familian, baina hiru ama desberdinenak.

Guadalupek San Juan jaiei buruzko ohiturak kontatu zizkigun, horietako batzuk oraindik ere bere familian mantentzen dituzte.

Zintak

ESK-093

- **Proiektua:** Eskoriatzako ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2021-05-12
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. San Juan goizean, landareak jaso eta gurutzeak ipini

- **Erref:** ESK-093/003
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juan egunean, goizeko iruntzarekin jasotzen ziren etxe atarian ipintzeko belarrak. Arantza-zuriarekin egiten ziren gurutzetxoak sarrerako ate gainean ipintzen ziren.</p>

2. Lore-sendorra eta gurutzeak, etxea eta soloak babesteko

- **Erref:** ESK-093/005
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Lore-sendorra edo sorta lorez apaindutako gurutze bat izaten zen. San Juan goizeko mezan bedeinkatu ondoren, gurutzeak soloetan ipintzen ziren eta landareak etxean gorde. Ekaitza zetorreanean, sendorretik belar apur bat ontzi batera bota eta etxe aurrean erre egiten zen. Etxea babesteko erritoak izaten ziren.</p>

3. San Juan eguneko goizean batzen zituzten loreak

- **Erref:** ESK-093/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Natura » Flora

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juan eguneko goizean jasotzen ziren landare ohikoenak: arrosak, serbilletak, margaritak, herbasantak... Kuku-prakak preziatuak izaten ziren, gutxi egoten baitziren.</p>

4. Aurreko urteko lore-sendor eta gurutzeak sutara

- **Erref:** ESK-093/009
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juanetan, lore-sendor eta gurutzeak ipintzean, aurreko urtekoak kendu eta gaueko sutan erre egiten ziren.</p>

5. San Juanetako lore-sendorra erakutsiz

- **Erref:** ESK-093/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Natura » Flora
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juanetako lore-sendor bat erakusten du. Erdian gurutzea ipintzen omen zitzaien. Lore bakoitza zein den azaltzen du. San Juan goizeko mezan bedeinkatu egiten ziren, gurutzeak soloetan ipini eta belarrak ganbaran gorde. Ekaitza zetorreanean, lehortutako sendorretik belar apur bat ontzi batera bota eta etxe aurrean erre egiten zen, etxea babesteko.</p>

6. Sarrerako ate gainean arantza-zurizko gurutzea

- **Erref:** ESK-093/013
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:10:43. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juan egunean etxeko sarrerako ate gainean ipintzen zen gurutzea erakusten du. Arantza-zuriarekin egiten zen. Urte osoan han egon eta gero, hurrengo urteko San Juan suan erretzen zen. Ez zen beharrezkoa gurutzeak San Juan goizean egitea, lehenago egin zitezkeen; belarrak batzea, aldiz, goiz horretan bertan egitea garrantzitsua zen.</p>

7. San Juan goizeko iruntza, azalarentzat ona

- **Erref:** ESK-093/015
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:13:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Juan goizeko iruntzarekin aurpegia garbitzea azalarentzat ona zela esaten zen. Zenbait gaixotasun kentzeko ere bai.</p>

8. Baserri bakoitzean San Juan su bat

- **Erref:** ESK-093/018
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:14:22. **Bukatu:** 00:18:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Juan bezperan baserri bakoitzak bere sua pizteko ohitura zegoen. Adarra, sasiak... erretzen zituzten. Izpiritu txarrak eta gaitzak uxatzeko egiten omen zen. Ez du gogoan suaren inguruan dantzarik edo kantarik egiten zutenik. Familian ospatzeko gaua izaten zen. Su gainetik salto egiteko ohitura bazuten. Normalean sua bere kasa itzaltzen lagatzen zen, haizerik ez bazen behintzat. Errautsekin ez zuten ezer berezirik egiten.</p>

9. San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohitura

- **Erref:** ESK-093/020
- **Iraupena:** 0:05:48. **Hasi:** 00:19:04. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Eskoriatzan ohitura da San Juan bezperan kintoek baserriren bateko "txopo" (tantai) bat aukeratu eta "lapurtzea". Zuhaitza aizkorarekin botatzen dute. Gero plazan jasotzen da; garai batean eskuz, sokak erabilita, gaur egun garabiaren laguntzaz. Lehen aza ipintzen zen puntan; gaur egun ere bai, baita ikurrina ere. Neskek ez zuten parte hartzen orduan, mutilek soldaduskara joan aurreko urtean egiten zuten.</p>

10. Asunak hanketan kolpatzea odol-zirkulazioarentzat ona

- **Erref:** ESK-093/023

- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:26:23. **Bukatu:** 00:26:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Natura » Flora

Laburpena:

<p>Asunak hanketan kolpatzea odol-zirkulazioarentzat ona omen zela esaten zuen Guadaluperen aitak.</p>

11. Zornea garbitzeko, tipula

- **Erref:** ESK-093/025
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:27:17. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Tipula olio tanta batekin berotuta zornea (pus) garbitzeko erabiltzen zen.</p>

12. Astamenda arkakusoak uxatzeko

- **Erref:** ESK-093/027
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:28:24. **Bukatu:** 00:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Flora
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Astamenda landarea etxea erraztatzeko erabiltzen zen. Usain ona emateaz gain, arkakusoak uxatzen zituela esaten zen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com